

# Ezpalak

JON TORNER

## Zazpi argazki klixex zaharrak gainditzeko



CLAUDE NORI Biarritzeko Terre d'Images festibalaren sortzaileak, zazpi argazkigile gazteren lanak bildu ditu Baionako Euskal Museoan. Erakusketak horrekin Euskal Herriaz dauden klixex zaharrak gainditu

nahi dituzte, paisaia eta pertsonak uztartzen dituzten irudi subjektibo eta poetikoen bidez. Erakusketak urtarriaren 31ra arte izango da zabalik. Argazkiak [www.museebasque.com](http://www.museebasque.com) webgunean ere ikusgai daude.

## Photo berriak aldizkari digitala sortu du Photomuseum-ek

ZARAUZKO PHOTOMUSEUM argazki eta zinema museoak *Photo Berriak* izeneko aldizkari digitala sortu du. Ez du maiztasun zehatzik izango –eduki berriak sortzen doazen heinean sareratuko dira–, eta museoaren jarduna ezagutaraztea eta argazkilaritzarekiko interesa sustatzea du helburu. [[www.photomuseum.name](http://www.photomuseum.name)]

## Euskal Herriko ondare digitala bilduko du Ondarenet proiektuak

EUSKO JAURLARITZAK Ondarenet artxibo elektronikoa jarri du martxan, Euskal Herriko ondare digitala bildu, gorde eta zabaltzeko helburuarekin. Dagoeneko hamabost webgunetako edukiak jaso dituzte eta 2009an beste 600 webgunetakoak biltzea aurreikusi dute. Egitasmo hau Europako Bataunak liburutegi digital bat sortzeko duen proiektuaren baitan kokatzen da eta 2010ean sei milioi dokumentu izatea espero da. [[www.ondarenet.kultura.ejgv.euskadi.net](http://www.ondarenet.kultura.ejgv.euskadi.net)]

**Des-kontrol** taldeak berari buruz esandakoak gezurtatu ditu *Hipokrisia eta faxismoaren aurka* izeneko komunikatuan ([www.des-kontrol.com](http://www.des-kontrol.com)): “Faxistatzat jo gaituzte eta argi eta ozenki esan nahi dugu Des-kontrol faxismo eta arrazakeriaren aurka azaldu dela atzo, gaur eta beti”. Hala, boikot horren aurkako diskoa kaleratu du Des-kontrolak. Besteak beste, Fernandok (Kuraia), Fermin Mugu-ruzak, Garik, Drogasek, Inigitok (Etsaiak) eta Nikok (M.C.D.) parte hartu dute *Hipokrisia eta faxismoaren aurka* diskoan (Baga-Biga).

**Logela Multimediai** eta Circle of Trust konpainia valentziarrak *breakdance*-a eta elementu multimediai uztartzen dituen *Papiro... flexia* ikuskizuna estreinatuko dute abenduaren 17an (20:00etan) Bilboko Euskalduna Jauregian, Dantzaldia jaialdiaren baitan. Hilaren 19an Eloreko Arriola antzokian izango dira.



**Caroline Deruas** frantziarraren *Le feu, le sang, les étoiles* lanak jaso du Zinebi Bilboko Zine Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Zinemaldiako sari nagusia. Euskal Zinemaren sari nagusia, berriz, Jon Garañoren *FGM* dokumentalak irabazi du. Emakumeen mutilazioaren gaiaz mintzo da film hori.

**Susa** argialetxeak *Aspaldiko lagunen bisita* liburua kaleratu du. 25 idazlek 1994an desagertu zen *Susa* literatura aldizkarian plazaratu zituzten ipuinak jaso ditu Mikel Elortzak. Horien artean daude, adibidez, Pako Aristi, Juan Luis Zabala, Mikel Hernandez Abaitua, Josu Landa, Itxaro Borda eta Xabier Montoia. Susa argialetxeak 25 urte bete ditu.

● **Idurre Alonsok Euskal literatur sistema eta literaturaren didaktika aztergai ikerlan akademikoaz hitz egin du Berrian:** «Euskal literatur sisteman indar handiena duten faktoreak merkatuarekin lotutakoak dira. Hala, oso nabarmena da salmenten, promozioen, hedabideen eta sarien eragina, eta hierarkia kualitatiboak indar urria dauka (...) Gutxi dira kritikari konstanteak, eta irakurleak kritika zintzo eta erregularra behar du (...) Euskal literatur sistema idazle gutxi batzuen ospari lotuegi ikusten dut (...) Irakasleek ez dakite literatura zertarako irakatsi behar den; nork bere hautua egiten du».

● **Mikel Valverde ilustratzailea elkarrizketatu du Gara egunkariak:** «Duela zenbait urte, aurreiritzi handiak zeuden gure sektorean: marrazkidun liburuak haurrentzat zirela, ilustrazioak eleberrien kalitate eskasa mozorrotzeko jartzen zirela... Gaur egun baztertu egin ditugu horiek guztiak (...) Hedabideek ere aurreiritzi mordoa kendu dute gainetik eta, hori dela eta, nobela grafikoen edo album ilustratuen kritikak ikus ditzakegu egunkari edo aldizkarietan. Horrekin guztiarekin batera, produktuen kalitatea oso ona da orokorrean, eta horrek ere laguntzen du».

# Abarrak

JON TORNER

## Zahartzaroaren zimurrak

**Arrugas. Paco Roca.**  
Astiberri (2007). 104 orrialde, koloretan. 15 euro.  
Interneten: [www.pacoroca.com](http://www.pacoroca.com).

“EZ DAKIT ZERGATIK IZAN DUEN HORRENBESTEKO ARRAKASTA. Agian irakurlearekin enpatia berezia lortzeak izango zuen zerikusirik. Komikiarekin erraza da jendearen sentimenduetara iristea, istorioari irakurleak ematen diolako amaiera”. 2008ko Komikiaren Espainiako Sari Nazionala jasotzean egin zituen adierazpenok Paco Roca komikigile valentziarrak.


Bartzelonako eta Italiako Lucca hiriko komiki azoketan ere saritu dute *Arrugas* obra. Alzheimerra bezalako gai delikatuari xamurtasunez baina beldurrik gabe heltzen dio. Komiki hunkigarria den arren, ez da mezu katastrofiko eta etsikorrik agertzen.

Bere adiskide baten aitak inspiratu zuen Paco Roca: “Gizon ikasia eta azkarra zen, eta Alzheimerrak nola kolpatu zuen ikustea gogorra izan zen niretzat”. Komikia egiteko lagun hark aitari buruz konta-

tutakoak erabili zituen abiapuntu. Zaharren egoitzak bisitatu zituen, eta ikusi zituenak eta hango aitonaonek eta medikuek esan zizkiontenak ere ageri dira komikian.

Senideek zaharren egoitzan sartu berri duten Emilio izeneko agurea da protagonista. Iraganeko oroitzapenek eta zaharretxeko bizipenek ordenik gabe egingo dute talka haren —eta gainerako agureen— barnean. *Arrugas* komikiak istorio tristea kontatzen du, baina narratzaileak tonu atsegina erabiltzen du. Eta halakoak dira ere marrazkiak: ez kaotiko eta beldurgarriak, trazu garbikoak eta koloretsuak baizik.

[Alzheimerren Espainiako Erakundeak *Arrugas* komikiaren ale piloa banatu ditu bere kideen artean. Bestalde, Delcourt argitaletxeak frantsesez kaleratu du Paco Rocaren obra eder hau, *Rides* izenburupean, eta han ere arrakasta handia izan du].



## Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak: .....

Helbidea: ..... Posta kodea: ..... Herria: .....

Herrialdea: ..... Jaioteguna: .....

N.A./I.F.K.: ..... Tel./Faxa: ..... e-posta: .....

Ordainketa mota:  Bankuz  
 Taloez  
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647  
Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa: .....

Titularra: ..... N.A./I.F.K.: .....

Titularraren helbidea: ..... Titularraren telefonoa: .....

Entitatea: ..... Sukurtsala: ..... K.D.: ..... Kontu zenbakia: .....

Data: ..... Sinadura: .....

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

### Aukeratu ongietorri oparia



“Kiro laz badakit”  
mahai-jolasa



“888 txiste”  
liburua



“Txoriak txori”  
lamina



%25eko beherapena  
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:  
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian  
165 € Ipar Euskal Herrian

**argia**